

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Arduragabekeria batengatik

Nora García Sanchez

1

'Biip, biip, biip...!!'. Goizeko zazpiak. Marta ezin altxatu dago ohetik, berandu jaikitzen ohituta baitago. Baina uda bukatu da, irailaren 6a iritsi da eta burua herriko festetan dauka oraindik.

Lehenengo batxilergoa aurten hasiko du Basabere Ikastolan, aldatu behar izan du aitaren lanarengatik.

Iratzargailua itzali eta begiak ixten ditu momentutxo batez. Uda guztia bere pentsamenduetatik pasatzen da, haize epel bat baletor bezala. Oroitzen da Zarautzera lagunekin joan zenean, kanpin-denda batean lo egin arren, egoerak merezi zuela. Edota San Ferminak eta gero kanpaldi batera joan zenean, non surfa egiten ikasi zuen eta bere ohiko kanpaldietako mutil-laguna izan zuen. Baita oroitzen da ere abuztuaz, alkoholezko egunsentiaz josita egon zena.

Bat-batean esnatzen da, ordua begiratzen du eta erlojuak goizeko zortzi eta erdiak direla dio. Lehenengo eguna eta jada berandu iritsi da, klaseak zortzietan hasten ziren eta!

Ikusten dituen lehenengo blusa eta prakak hartu, edalontzi bat kolakaoz beteta azkar edan eta hortzak garbitzen dituen bitartean, bere ilea orrazten du.

Ondoren, bere gustukoen abeslaria jartzen du Spotify-n.

Etxetik atera eta erlojuak 8:46 markatzen du. Gutxienez, bigarren klasera laster ailegatuko da. Korrika egiten du atzetik norbait berarengana joango balitzaio bezala, izerditan hasten da eta ura edatera gelditu beharra dauka.

Ikastola gertu begizatzen du, baina lehenago Basabereko kale nagusia gurutzatu behar du.

Kale hori beti egon da korrika eta presaka dabiltzan kotxeez beteta.

Martak azkar gurutzatzen du kalea, hain azkar ezen Opel baten barruan dagoen gidariak ezin izan duen kotxea guztiz gelditu.

2

2018ko irailaren 6a

Kaixo Marta,

hemen natzaizu berriz, beste egun bat, gela txuri eta hotz honetan, zuri lagun egiten, iluntasun honetan bakarrik ez sentitzeko.

Baina gaur ez da beste egun bat, gaur eguna da. Duela 365 egun klaseak hasi zenituen Basabere Ikastolan, baina klasera ez zinen iritsi, bidean gelditu zinen. Opel auto batek harrapatu zintuen eta momentuan konortea galdu zenuen. Oroitzen dut ambulantiaren soinua ni unibertsitatera joaten nintzen bitartean. Ez nion garrantzirik eman momentu horretan.

Minutu batzuk geroago ospitalera zinderamatzen konortea galtzeaz batera, burua zoruan jo zenuen eta odol asko atera zitzaizun, edo hori esan zuten medikuek.

Klasean nengoen bozgorailuetatik 'Olatz Etxegarai, zuzendariaren gelara joan zaitez. Olatz Etxegarai...' entzun zenean. Bat-batean klase guztiak aurpegian tximinoak izango banitu bezala begiratu ninduen. Dardarka altxatu nintzen eta zuzendariaren bulegora abiatu nintzen.

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA | IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2019

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA

Bidea oso luzea egin zitzaidan, ez zitzaidalako gustatzen munduko erdigunea izatea.

Ailegatu nintzenean esan zidaten nire ahizpa Martak istripu bat izan zuela, eta zitzu bizian Basabereko ospitalera eraman zutela. Aho bete hortz gelditu nintzen, hasi nintzen nire barnean pentsatzen eta ezin nuen jendea entzun. Kotxez eraman ninduten ospitalera.

Ikusi zintudanean, ezin nuen sinetsi, aurpegi eta gorputz guztia zauriz beteta zeneukan, eta larriena, koman zeunden, ezer egin gabe, isil isilik, ohera sartu eta amets sakon batean sartu bazina bezala. Horrela zaude oraindik gaur, begiak ireki gabe, makina batek zure gorputzaren betebeharrak eginez.

Horregatik gurasoek eta nik adostu genuen urte batean ez bazinen esnatzen, itxaropena galduko genuela eta makina deskonektatuko genuela. Gaur eguna da, ezin dut sinetsi urte bat pasa izana momentu horretatik, egun horretan kaleko bi aldeetara begiratu izan bazenu.. Oso triste nago, baina itxaropena galdu dut, eta ezin dut gehiago sufrimendu honekin bizi. Horregatik makina deskonektatu behar dugu. Bizitza aurrera doa eta gu ez goaz bere parera, gelditu egin gara zu agurtzeko. Esateko gure bihotzetan oraindik zaudela, eta beti egongo zarela.

Zure klasekideak izango zirenak etorri ziren zu bisitatzera egun batzuk geroago, zu ez ezagutu arren, klaseko listan 'Marta Etxegarai' jartzeak eta ez jakitea non zegoen edo nor zen intriga ematen zien, eta bisitatzera etorri zirenean, batzuk negar egin zuten eta guzti.

Arduragabekeria batengatik.. urte bat daramagu orain zure algara, irribarre eta negarra ikusi gabe. Ez dakit zergatik ez duzun inoiz begiratu ea kotxeak datozen, uste zenuen istripuena mito bat zela, eta azkenean istripua zuri gertatu zitzaizun. Ez zenuen kaleko bi aldeetara begiratu, baina orain zuri errieta botatzeak ez du merezi, batez ere hau ez duzulako inoiz irakurriko. Aita sartu da logelara eta medikua ere bai, orain deskonektatuko dute makina.

Agur ahizpatxo, beti bihotzean izango zaitugu.

Medikuak off jartzen duen botoi bati sakatu eta makinak ibiltzeari uzten dio, Martak bezala.